

DORTOKEN LAPURKETA

Hirietan, norbait arraroa den zerbeit egiten hasten bada, beste guztiak berdina egin nahi dute. Adibidez, dortokak paseatzea. Behin, bikote gazte batek haien dortoka ateratu zuten, lehenik, auzokoak kopiatu zieten, gero, beste guztiak. Hiriko biztanle ia guztiak dortokak adoptatu zituzten. Hainbeste jendek ezen, hirian eta inguruetan ez ziren geratzen. Bat hartu ezin izan zutenak, leku guztietan bile hasi ziren. Haietako bat, Aizane izan zen. Bile ta bile zebilen baina ez zuten ezer aurkitzen.

Ez zen besak gurutzatuta geratuko, plan bat bururatu zitzaion, kaletik dortoka bat lapurtzea. Negua zen, ia egunero eurraren zegoen, egun horietan, modan zegoen dortoken artean, jertseak eramaten. Aizanek pentsatu zuen ideia ona zela jabea despistatuta zegoenean dortoka jertsetik ateratzea eta horren ordez jostailuzko bat sartzea. Jostailua erostera joan zen bodezpada bat beina gehiago erosi zituen. Ez ziruditen oso erreak. Arratsaldean, auzotik paseo bat ematera joan zen, jostailua eskuan zuela. Auzokideen dortokak begiratzen zegoen eta batbatean emakume batek hitz egin zion.

-Aupa Aizane. -esan zion emakumeak.

-Kaixo, zelan? -erantzun zion Aizanek.

-Ondo, zertarako daramazu jostailuzko dortoka? -galdetu zion auzokoak.

-Nire alabarrentzako da, portzierto, oso polita zure dortoka.

-Eskerrik asko!-emakumea joan egin zen.

Aizane, pentsatu zuen, hobea izango zela auzotik kanpo lapurtzea, auzoko guztiek ezagunak zituen eta. Hurrengo egunean, alboko auzora joan zen, ikusi zuen mutil despistatu batek dortoka polit bat zuela. Momentu batean solte utzi zuen. Aizane prest zegoen, inor begiratzen ez zuenean, zas! Dortoka jostailuegatik aldatu zuen. Mutila ez zen konturatu eta Aizane etxera bueltatu zen.

Egun horretatik aurrera, Aizane dortoka polit bat zuen. Oso ondo zaindu zuen. Ez daki ezer mutikeri buruz eta ez dio inori kontatu lapurtu zuela.